

2019/07/23an EGINDAKO OHIKO UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 23/07/2019 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Ander Errarte del Pozo
Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2019ko uztailaren 23an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla, bildu da Udaltzarra, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Eluska Irazu Henández

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 23 de julio de 2019, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria, bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria y con la asistencia de los señores que arriba se expresan, para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Eluska Irazu Henández.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2019-06-15 eta 2019-06-26.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2019ko uztailaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Alkateak berriaz eman du ondorengo erabakiaren berri:

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0837

GAIA: UDAL ZINEGOTZIEI BATZORDEAK KUDEATZEKO ESKUORDETZA BEREZIA EMATEA

ESPEDIENTEA: 2019IUDE0001

INTERESDUNA: ESKORIATZAKO UDALA

Eskoriatzako Udalak 2019ko ekaiaren 26an egindako Osoko Bilkuran udalaren organigrama osatuko duten batzorde informatzaileak sortzea eta eratzea erabaki zuen. Batzorde bakoitza zerbitzu ezberdinez osatuta dago, eta zerbitzu horien egitekoak ere Osoko Bilkura horretan zehaztu ziren. Zerbitzu horietako batzuk behar bezala funtziona dezaten, horien zuzendaritza eta kudeaketa Udaleko zinegotzien esku uztea beharrezkoa dela ikusi da.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduaren 43. ataleko 4 eta 5b) azpiatalek arautzen dituzten ahalmenen arabera, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

1.- Behean aipatzen diren zinegotziei bertan adierazitako zerbitzuen zuzendaritza eta kudeaketa eskuordetzan ematea. Zinegotzi horiek, baina, ez dute hirugarrenengan eragiten duten ekintza administratiboetan erabakitzeke ahalmenik.

*Jaiak: Antonio Regaño Sajeras
Kirolak: Maite Uribe Beristain
Elizateak: Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza*

2.- Izendapen horien ondorioz hirugarrenengan eragingo duten ekintza administratiboak erabaki ezin badira ere, zinegotzi bakoitzak bere ardurapeko zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketaren ardura izango du, ondorengo betebeharez gain:

- a)- Zerbitzuak behar bezala funtziona dezala zaintzea.*
- b)- Zerbitzua zuzendu, bultzatu eta ikertzeko beharrezko aholkularitza tekniko eskatzea.*
- c)- Zerbitzuko gaien berri arloko batzordeburuari ematea.*

Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ohikoa

3.- Erabaki hau dagokien zinegotziei jakinaraztea; gainera Udalbatzari ere jakinaraztea eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- Erabaki honek sinatze dataren biharamunetik aurrera izango du indarra.

3.- ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Udalbatzarrari jakinarazi zaio Nestor Arana Arexolaleiba jaunak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikuluan aurreikusitakoa betez, ondare ondasunen, balizko bateraezintasun kausen eta diru sarrerak eman ditzaketen jardueren aitortpena egin duela dagokion interesen erregistroan inskriba daitezen, eta horrela, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak beteta, Udalbatzarrak Nestor Arana Arexolaleiba jaunari bere kargua eman dio.

4.- ZINEGOTZI BERRIA EH BILDU UDAL TALDERA ATXIKITZEA.

Udalbatzarra jakinean gelditzen da Nestor Arana Arexolaleiba zinegotzia EH BILDU udal taldera atxikitzen dela ordezeko bozeramale bezala.

5.- EH BILDUREN PROPOSAMENA BATZORDE INFORMATZAILEETAN PARTE HARTZEKO.

Udalbatzarrak 2019ko ekainaren 26an egindako bilkuran, EH BILDU udal taldeak erabaki gabe utzi zituen batzorde informatzailetako kide izateko talde horrek proposatu beharreko zinegotziak.

Horretarako egiten duen proposamenaren berri eman du EH BILDUK, eta aho batez onartu da:

- *Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzailea: Nestor Arana Arexolaleiba*
- *Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzailea: Nestor Arana Arexolaleiba*
- *Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzailea: Ander Errarte del Pozo*
- *Kultura eta Kirola batzorde informatzailea: Dorleta Sologaietxea Agiriano*
- *Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzorde informatzailea: Eluska Irazu Hernández*

- *Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzailea: Eluska Irazu Hernández*

6.- UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA HAINBAT ERAKUNDEETARAKO.

Ondoren aipatuko diren zinegotziak ondoren ere esango diren erakundeetarako udal ordezkari izendatzeko Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren berri eman da:

- ***EUDEL:***

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

Ordezkoa: Josu Ezkurdia Santamaría

- ***EUSKALTEGI LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA:***

Lehendakaria edo lehendakari ordea, estatutuen arabera dagokiona: Jose Ramón Zubizarreta Alegría

2 kide: Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza (EEE)
Eluska Irazu Hernández (EH BILDU). Ordezkoa: Nestor Arana

- ***UR KONTSORTZIOA:***

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

Ordezkoa: Josu Ezkurdia Santamaría

- ***LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO, ALMENEKO, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ETA HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ESKOLA KONTSEILUAK:***

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

Ordezkoa: Antonio Regaño Sajeras

- ***MUSIKA ESKOLA:***

Titularra: Puri Regidor Varela

Ordezkoa: Antonio Regaño Sajeras

- ***LANBIDE HEZIKETAKO PATRONATUA:***

Titularra: Antonio Regaño Sajeras
Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

- **DOILAN S.COOP:** Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegría
- **ESKORIATZAKO UDALAREN ETA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEKO HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA:**

Titularra: Josu Ezkurdia Santamaría

Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

- **AGENDA 21eko PROZESUAK EZARTZEKO ARDURADUNA:**

Titularra: Josu Ezkurdia Santamaría

Ordezkoa: Antonio Regaño Sajeras

- **GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOPERATIBA ELKARTEA:**

Titularra: Josu Ezkurdia Santamaría

Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

- **AIZKORRI-ARATZ PARKEKO PATRONATUA:**

Titularra: Iñaki Kerejeta Gorostiza

Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

- **JOSE ARANA PATRONATUA:**

José Ramón Zubizarreta Alegría (EAJ/PNV)

María Purificación Regidor Varela (EAJ/PNV)

Dorleta Leceta Uribeetxebarria (EH BILDU)

Aitor Zubizarreta Alegría (EH BILDU)

Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza (EEE)

Anabel Legaz Canfranc (PSOE)

Juan Luis Merino Sanabria (ELKARREKIN PODEMOS)

- **“LANDAOLA” GIPUZKOAKO LANDA GARAPEN ELKARTEA:**

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta

Alegría Ordezkoa: Iñaki Kerejeta Gorostiza

- **ZUBILLAGA HILTEGIA:**

Titularra: Iñaki Kerejeta Gorostiza

Ordezkoa: Maite Uribe Beristain

- **DEBAGOIENA MANKOMUNITATEKO JUNTA:**

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

Odezkoa: Josu Ezkurdia Santamaría

- **SURADESA:**

Titularra: Josu Ezkurdia Santamaría

Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

Proposamena bototara jarrita, onartu egin da 7 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 6k eta EEEko 1ek) eta EH BILDUko 3 zinegotzietatik aurka bozkatuta.

BOTO AZALPENA:

Nestor Aranak bere taldeko zinegotzietatik aurka bozkatu izana justifikatzeko esan du proposamenean botere kontzentrazioa ikusten dutela hainbat ikuspuntutik.

Lehenengoa, esan du, genero ikuspegitik, izendatutako gehienak gizonezkoak baitira, 15 titularretatik bakarra da emakumea, eta gobernu taldean badira emakume oso egokiak, presentzia

handiagoa izan beharko luketenak; “martxoaren 8” gaur baita horretarako, eta alferrekoa da horrelakorik ospatzea honelakoetan ez badira berdintasunerako urratsik ematen. Esan du gauza bera gertatzen dela batzorde informatzailetakoko buruei dagokienez, 6 batzordetik bitan bakarrik direlako buru emakumeak, eta hor ere urratsak eman beharko liratekeela. Bigarren ikuspuntua, jarraitu du, arduren banaketaren ingurukoa da. Esan du EH BILDUK ere izan zituela botoemaileak hauteskundeetan, eta badagoela beraiek ordezkatzan duten kolektibo bat, eta horregatik, uste dutela ardura batzuk hartu beharko lituzketela. Adibide bezala jarri du Aretxabaletako Udala. Esan duenez, bertan urratsak eman baitira EH BILDURI ardurak eta ordezkaritza emateko, hori izanik eskatzen duten beste kontuetako bat. Amaitzeko adierazi du bere ustez ardura metaketa hori gobernu taldean ere gertatzen dela, boterea gutxi batzuen eskuetan baitago. Hala ere, esan du Alkateak ardura gehiago hartu behar duela ulertzen duten arren, uste dutela ere ardurak banatu egin behar direla.

Josu Ezkurdiak, bere taldeko emakumeak aintzat hartzearen eskerrak eman ondoren, eta, esan duenez, horrekin bat etorrita, erantzun dio proposamena eraginkortasunagatik eta praktikotasunagatik justifikatzen dela; alkatea liberatuta egonda berak baitu arazo gutxien izendapenek dakartzaten betebeharrei erantzuteko eta bileretara joateko, eta alkatea emakumezkoa balitz berak jasoko lituzkeela izendapen horiek.

Nestor Aranak erantzun dio alkatearena ulertu dezakeela, baina, gainontzeko izendapenetan gizonetzkoek pisu handiago dutela. Jarraitu du esanez ez dela praktikotasunagatik; horrela baldin bada, horrek esan gura duelako zerbaitek kale egin duela taldearen zerrendak egiterakoan hauteskundeak baino lehen. Praktikotasun hori kontuan hartu beharko zela zerrendak egiterakoan eta aukera handiagoak eman emakumezkoiei, eta taldeko emakumeen artean arazoren bat egongo balitz (EAJ-PNVri buruz ari da), bere taldean badirela emakumeak ardurak hartzeko prest. Berriz ere esan du ez duela uste praktikotasun kontua denik, eta orain dela urratsak emateko unea, ez bakarrik “martxoaren 8an”. Azkenik, EAJ-PNV taldeko emakumeak animatu ditu bere lekua aldarrikatzera, bestela beti jarriko delako praktikotasuna aitzakia bezala.

7.- DORLETA AUZOKO 19. ZENBAKIAN IRAKASKUNTZAKO ERABILERA DUEN ERAIKUNTZA BIRGAITZEKO EDO HANDITZEKO OBRAK GIZARTE INTERESEKOTZAT JOTZEA UDAL ZERGETARAKO.

2019ko ekainaren 16ko Alkate erabakiz, hirigintza lizentzia eman zitzaion HUHEZI KOOP. ELKARTEARI honako obrak egiteko: Dorleta auzoko 19. zenbakiko eraikina birgaitzea eta handitzea Itziar Imaz Ganzarain arkitekto andreak egindako eta 2019/01/31n ikus-onetsitako proiektuaren arabera.

Lizentzia ematearekin batera, lizentziak sortutako tasa eta zergak kitatu ziren behin-behinekoz, 10.726,00 euro eta 173.000,07 euro hurrenez hurren.

EIOZ kuotan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantzak 5.3.3.4 artikuluan aurreikusitako hobaria aplikatzeko eskatu da 2019ko uztailaren 3an.

HUHEZI KOOP. ELKARTEAK uztailaren 3ko idazkian alegatutako arrazoiak ikusita, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Nestor Arana abstenituta erakunde eskatzaileko langilea izateagatik, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- GIZARTE INTERESEKOTZAT JOTZEA Dorleta auzoko 19. zenbakiko eraikina birgaitzeko obrak; eta ondorioz, EIOZetik sortutako kuotaren %95eko hobaria ematea.

8.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA UDALAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO HITZARMENA EA EKO ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROAN AURKEZTEKO.

Erkidegoko administrazioari zuzendutako idazkiak Udal honetako erregistroan aurkeztu ahal izateko Eusko Jaurjaritzarekin lankidetzat hitzarmen administratiboa sinatzea proposatzen duen Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak bidalitako diktamena ikusi da.

Hori horrela, eta legezko gehiengo absolutuaren quoruma osatzen duten bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Proposatutako hitzarmena sinatzea.

Bigarrena.- Jose Ramon Zubizarreta Alegria Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkartzan.

9.- 2018-KO KONTU OROKORRAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2018ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, Udalaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera, eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren aurrekontuaren kitapenak.

2019ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2019ko maiatzaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2018ko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2019ko maiatzaren 23an egindako Kontu Batzorde Berezian hasiera batean onartu ondoren, eta 2019ko maiatzaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

10.- 18. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Kredituak aldatzeko 18. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertaratutako EH BILDUko 3 zinegotziak abstenituta, eta bertaratutako gainerako zinegotziek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 18. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

| Gastuen | Azalpena | Kredituak |
|---------|----------|-----------|
|---------|----------|-----------|

| aurrekontu aplikazioa | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
|---------------------------------|---|------------|------------|----------------|
| 1 0100.601.153.30.04 2019 | HIRI ALTZARIAK | 87.800,00 | 40.000,00 | 127.800,00 |
| 1 0100.601.165.00.01 2019 | ARGITERIA PUBLIKOA | 130.500,72 | 90.000,00 | 220.500,72 |
| 1 0400.626.920.00.01 2019 | INFORMAZIO PROZESUTARAKO EKIPOAK | 5.650,00 | 2.600,00 | 8.250,00 |
| 1 0200.231.912.00.01 2019 | DIETAK,LOKOMOZIO GASTUAK:ZINEGOTZIAK | 3.000,00 | 1.500,00 | 4.500,00 |
| 1 0500.227.241.00.13 2019 | MANKOMUNITATEA:ENPLEGUA | 19.794,24 | 60,00 | 19.854,24 |
| 1 0100.227.163.00.01 2019 | GARBITASUNA:BIDE PUBLIKOAK | 167.781,33 | 0,01 | 167.781,34 |
| 1 0200.421.920.00.01 2019 | MANKOMUNITATEA:ADMON.OROKORRA | 47.913,64 | 144,00 | 48.057,64 |
| | | | | |
| GUZTIRA | | 462.439,93 | 134.304,01 | 596.743,94 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|------|---------------------------|---|------------|
| a | 2 0200.870.000.00.01 2019 | DIRUZAINZAKO GERAKINA.GASTU OROKORRETAR | 134.304,01 |
| | | | |

| | |
|-----------------------------|-------------------|
| FINANTZAKETA GUZTIRA | 134.304,01 |
|-----------------------------|-------------------|

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

11.- 19. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 19. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 19. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|------------------------------|------------------------------------|---------------------------|-------------------|---------------------------|
| 1 0200.160.342.20.01 2019 | GIZARTE- ASEGURANTZA:KIROLDEGIA | 26.572,34 | 6.100,00 | 20.472,34 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | 26.572,34 | 6.100,00 | 20.472,34 |

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|------------------------------|--|--------------------|-----------------|--------------------|
| 1 0300.481.230.10.01 2019 | DIRU LAGUNTZA:BEHARRIZAN SOZIALEKO EGOER | 0,00 | 6.000,00 | 6.000,00 |
| 1 0400.481.341.00.01 2019 | DIRU LAGUNTZA:KIROLA | 3.000,00 | 100,00 | 3.100,00 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | 3.000,00 | 6.100,00 | 9.100,00 |

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

BOTO AZALPENA:

Nestor Aranak esan du bere taldea ados dagoela puntu gehienekin, baina, ez hainbeste informatika ekipoei buruzkoarekin. Adierazi du kostuari buruzko informazioa jaso duten arren, ez zaiela adierazi erosi gura diren ekipoak norentzat izango diren. Gehitu du planifikazio politika falta antzematen dutela erosten den informatika materialari eta norentzat erosten denari buruz , eta baita lizentziei buruz ere.

Josuk jakinarazi dio hiru tableta erosi behar direla batzordeburu izango diren hiru zinegotzirentzat, gaur egun ez baitute udal ekiporik. Adierazi du uste duela ekipamendu hori beharrezkoa dela beraien kargua betetzeko, eta tableta bakoitzak 364 euro balio duela; gero, gehitu du, softwarearen eta lizentzien kostua dago. Esan du bere garaian Nestorren taldeak (EH BILDUK) software librearen alde egin behar bazuen ere, ikusi dela bateragarritasun arazoak ematen ari direla zenbait ekipo eta telefonok, eta horren aurrean funtzionamendua berrmatuko duen sistema baten alde egin dutela. Aurreratu du arlo horretako politika eztabaidatu daitekeela datorren urterako aurrekontua onartzerakoan, orduan planteatzen baitira arlo horretan eta beste batzuetan datorren ekitaldirako aurreikuspenak.

12.- DIRU LAGUNTZEI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOARI ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 18an egindako bilkuran, 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa eguneratzeko erabakia hartu zuen plan hori 2019ko ekitaldiko aurrekontuari egokitzeko.

Eguneraketa onartuta, komenigarria ikusi da planaren eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako diru laguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko. Aldaketa horiek honako hauek dira:

A- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Programatutako kirol jarduerentzat eta irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kirol talde eta elkarteentzako diru laguntzak.

B- "3. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE EKINTZA" LERROAN PROGRAMA BERRI BAT SORTZEA udal gizarte laguntzen beste programaren batean aurreikusita ez dauden eta esku-hartu behar dela uste diren gizarte intereseko beharrei erantzun ahal izateko.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ONDORENGO PROGRAMAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Programatutako kirol jarduerentzat eta irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kirol talde eta elkarteentzako diru laguntzak.

HARTZAILEA: Egoitza edota jarduera eremua Eskoriatzan duten herritar taldeak eta kirol elkarteak.

HELBURUA: Herriko irabazi asmorik gabeko kirol elkarteek eta taldeek urtean zehar egingo dituzten jarduerak diruz laguntzea. Azken helburua da kalitatezko kirol jarduerak eskaintzea herrian, eta herritarren parte hartzea sustatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa. Lehiaketa.

2019ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.100 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.00.01 Partida

BIGARRENA.- ONDORENGO LAGUNTZA PROGRAMA SORTZEA.

L) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: **GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN AURREIKUSI GABEKO BEHAR BEREZIKO EGOERAK.**

HARTZAILEA: aparteko edota aurreikusi ezinezko larrialdi edota presazko egoera berezietan dauden elkarteak, erakundeak edo pertsona fisikoak.

HELBURUA: udal gizarte laguntzen beste programaren batean aurreikusita ez dauden eta esku-hartu behar dela uste diren gizarte intereseko beharren aurrean diru laguntza ematea.

LORTU GURA DENA: Gizakiak edo natura-hondamendiek sortutako aurreikusi ezinezko egoerak arintzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Zuzena

AURREIKUSITAKO KOSTUA: €

FINANTZIAZIOA: Aurrekontu aplikazioa

13.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:30an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el 15/06/2019 y 26/06/2019.

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 16 de julio de 2019 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de la siguiente resolución:

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0837

GAIA: **UDAL ZINEGOTZIEI BATZORDEAK KUDEATZEKO ESKUORDETZA BEREZIA EMATEA**

ESPEDIENTEA: 2019IUDE0001

INTERESDUNA: ESKORIATZAKO UDALA

Eskoriatzako Udalak 2019ko ekaiaren 26an egindako Osoko Bilkuran udalaren organigrama osatuko duten batzorde informatzaileak sortzea eta eratzea erabaki zuen. Batzorde bakoitza zerbitzu ezberdinez osatuta dago, eta zerbitzu horien egitekoak ere Osoko Bilkura horretan zehaztu ziren. Zerbitzu horietako batzuk behar bezala funtziona dezaten, horien zuzendaritza eta kudeaketa Udaleko zinegotzien esku uztea beharrezkoa dela ikusi da.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduaren 43. ataleko 4 eta 5b) azpiatalek arautzen dituzten ahalmenen arabera, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

1.- Behean aipatzen diren zinegotzietan bertan adierazitako zerbitzuen zuzendaritza eta kudeaketa eskuordetzan ematea. Zinegotzi horiek, baina, ez dute hirugarrenengan eragiten duten ekintza administratiboetan erabakitzeko ahalmenik.

*Jaiak: Antonio Regaño Sajeras
Kirolak: Maite Uribe Beristain*

Ohikoa Udalbatza
PlenoPleno Ohikoa

Elizateak: Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

2.- Izendapen horien ondorioz hirugarrenengan eragingo duten ekintza administratiboak erabaki ezin badira ere, zinegotzi bakoitzak bere ardurapeko zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketaren ardura izango du, ondorengo betebeharez gain:

- a)- Zerbitzuak behar bezala funtziona dezala zaintzea.*
- b)- Zerbitzua zuzendu, bultzatu eta ikertzeko beharrezko aholkularitza tekniko eskatzea.*
- c)- Zerbitzuko gaien berri arloko batzordeburuari ematea.*

3.- Erabaki hau dagokien zinegotziei jakinaraztea; gainera Udalbatzari ere jakinaraztea eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- Erabaki honek sinatze dataren biharamunetik aurrera izango du indarra.

3.- TOMA DE POSESION DEL CARGO DE CONCEJAL

Dada cuenta al Pleno de que ha sido formulada la declaración de bienes patrimoniales, y de causas de posibles incompatibilidades y actividades que puedan proporcionar ingresos económicos, a los efectos de su inscripción en el correspondiente registro de intereses, tal como está previsto en el artículo 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y cumplidos los trámites legales de toma de posesión del cargo de concejal, el Pleno da posesión de su cargo a Nestor Arana Arexolaleiba.

4.- ADSCRIPCION DE NUEVO CONCEJAL AL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU

El Pleno toma cuenta de que el concejal Nestor Arana Arexolaleiba queda adscrito al grupo municipal EH BILDU en calidad de portavoz sustituto.

5.- PROPUESTA DE EH BILDU PARA PARTICIPAR EN COMISIONES INFORMATIVAS.

En la sesión del pleno celebrada el 26 de junio de 2019 el Grupo Municipal EH BILDU dejó pendiente para proponer los concejales del grupo que participarían como miembros en las COMISIONES INFORMATIVAS.

EH BILDU ha dado traslado de la propuesta que a tal efecto hace y por unanimidad se acuerda aprobar la misma:

- *Comisión Informativa Urbanismo, Movilidad y Medio Ambiente : Nestor Arana Arexolaleiba*
- *Comisión Informativa de Personal y Hacienda.: Nestor Arana Arexolaleiba*
- *Comisión Informativa de Servicios Sociales: Ander Errarte del Pozo*
- *Comisión Informativa de Cultura y Deportes: Dorleta Sologaitoa Agiriano*
- *Comisión Informativa de Desarrollo Económico Sostenible : Eluska Irazu Hernández*
- *Comisión Informativa de Euskera, Juventud y Educación: Eluska Irazu Hernández*

6.- DESGINACION DE REPRESENTANTES DEL AYUNTAMIENTO EN DISTINTAN ENTIDADES Y ORGANISMOS

Se da traslado de la propuesta que se eleva desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda para nombrar a los concejales, que a continuación se mencionarán, representantes municipales en las instituciones que también se relacionan a continuación:

- ***EUDEL:***

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

Ordezkoa: Josu Ezkurdia Santamaría

- ***EUSKALTEGI LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA:***

Lehendakaria edo lehendakari ordea, estatutuetan arabera dagokiona: Jose Ramón Zubizarreta Alegría

2 kide: Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza (EEE)
Eluska Irazu Hernández (EH BILDU) Ordezkoa: Nestor Arana

- **UR KONTSORTZIOA:**

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegria
Ordezkoa: Josu Ezkurdia Santamaría

- **CONSEJOS ESCOLARES DE LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA, ALMEN, MONDRAGON UNIBERTSITATEA Y HAURRESKOLAK PARTZUERGOA:**

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Ordezkoa: Antonio Regaño Sajeras

- **MUSIKA ESKOLA:**

Titularra: Puri Regidor Varela

Ordezkoa: Antonio Regaño Sajeras

- **LANBIDE HEZIKETAKO PATRONATUA:**

Titularra: Antonio Regaño Sajeras
Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegria

- **DOILAN S.COOP:** Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegria

- **COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA Y EVE:**

Titularra: Josu Ezkurdia Santamaría

Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegria

- **RESPONSABLE DE IMPLEMENTAR LOS PROCESOS DE AGENDA 21:**

Titularra: Josu Ezkurdia Santamaría

Ordezkoa: Antonio Regaño Sajeras

- **GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOPERATIBA ELKARTEA:**

Titularra: Josu Ezkurdia Santamaría

Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

- **PATRONATO DEL PARQUE NATURAL AIZKORRI-ARATZ:**

Titularra: Iñaki Kerejeta Gorostiza

Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegría

- **PATRONATO JOSE ARANA:**

José Ramón Zubizarreta Alegría (EAJ/PNV)

María Purificación Regidor Varela (EAJ/PNV)

Dorleta Leceta Uribeetxebarria (EH BILDU)

Aitor Zubizarreta Alegría (EH BILDU)

Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza (EEE)

Anabel Legaz Canfranc (PSOE)

Juan Luis Merino Sanabria (ELKARREKIN PODEMOS)

- **“LANDAOLA” GIPUZKOAKO LANDA GARAPEN ELKARTEA:**

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta

Alegría Ordezkoa: Iñaki Kerejeta Gorostiza

- **ZUBILLAGA HILTEGIA**

Titularra: Iñaki Kerejeta Gorostiza

Ordezkoa: Maite Uribe Beristain

- **DEBAGOIENA MANKOMUNITATEKO JUNTA**

Titularra: Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Odezkoa: Josu Ezkurdia Santamaria

- **SURADESA:**

Titularra: Josu Ezkurdia Santamaria

Ordezkoa: Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Sometida a votación la propuesta es aprobada con el voto a favor de 7 concejales (6 de EAJ/PNV y 1 de EEE) y el voto en contra de los 3 concejales de EH BILDU

EXPLICACION DE VOTO:

Nestor Arana justifica el sentido negativo del voto de los concejales de su grupo alegando que en la propuesta ven una concentración de poderes desde distintos puntos de vista. El primero, dice, desde la perspectiva de género puesto que la mayoría de las designaciones recaen en hombres, de 15 titulares sólo 1 es mujer, y en el equipo de gobierno hay mujeres muy válidas que debieran de tener una mayor presencia; que para ello el “8 de marzo” es hoy y es inútil celebrar si en situaciones como estas no se dan pasos hacia la igualdad. Añade que también esa circunstancia se da en las presidencias de las comisiones informativas, puesto que de 6 comisiones sólo en dosrecae la presidencia en una mujer, y que ahí también habría que darse pasos. El segundo punto de vista, sigue diciendo, es el relativo al reparto de responsabilidades. Manifiesta que EH BILDU también tuvo sus votantes en las elecciones y tiene un colectivo al que representa y por ello creen que debieran de asumir algunas responsabilidades. Pone como ejemplo el Ayuntamiento de Aretxabaleta, donde, dice, se han dado pasos para atribuir responsabilidades y representatividad a EH BILDU y que es también otra de las cuestiones que reclaman. Termina su intervención señalando que a su entender esa concentración se da también en el propio equipo de gobierno, en el que el poder se concentra en unos. Si bien dice entender que el Alcalde deba de asumir más responsabilidades, pero también creen que hay que repartir las mismas.

Josu Ezkurdia, tras darle las gracias por la consideración tenida hacia las mujeres de su equipo y que, según dice, comparte plenamente, le responde que la propuesta viene justificada en razones de eficacia y practicidad; que estando el alcalde liberado es el que menos problemas tiene para atender las obligaciones que puedan derivar de los nombramientos y para acudir a las reuniones, que si el Alcalde fuera mujer esos nombramientos recaerían en ella.

Nestor Arana le responde que lo del Alcalde puede entender, pero que en el resto de nombramientos hay cogido un mayor peso los hombres. Sigue diciendo que no es cuestión de practicidad, porque si es así quiere decirse que hay algo que ha fallado en el momento de formar las listas del grupo antes de las elecciones. Que esa practicidad debiera de haberse tenido en cuenta a la hora de formar listas y dar mayor posibilidades a las mujeres, así como que si hay algún problema entre las mujeres del grupo (Se refiere a EAJ-PNV) que en su grupo hay mujeres en disposición de asumir responsabilidades. Insiste que no cree que es cuestión de practicidad y que es ahora cuando hay que dar pasos y no solo el "8 de marzo". Termina su intervención animando a las mujeres del grupo EAJ-PNV a que reivindiquen su sitio porque si no siempre se pondrá como excusa la practicidad.

7.- DECLARACIÓN A EFECTOS TRIBUTARIOS MUNICIPALES COMO DE INTERES SOCIAL LAS OBRAS DE REFORMA Y AMPLIACION DE EDIFICIO CON USOS DOCENTES EN DORLETA AUZOA Nº 19

Por Resolución de Alcaldía de fecha 16 de junio de 2019 se concedió a HUHEZI KOOP.E. licencia urbanística para la realización de las obras que a continuación se indican: Reforma y ampliación del edificio docente sito en Dorleta auzoa nº 19, conforme al proyecto redactado por la arquitecta Dña. Itziar Imaz Ganzarain y visado con fecha 31/01/2019.

Con motivo de la licencia concedida se procedió a liquidar provisionalmente la tasa e impuestos devengados, cuyos importes ascienden respectivamente a 10.726,00 euros y 173.000, 07 euros

Con fecha 3 de julio de 2019 se solicita se aplique en la cuota del ICIO la bonificación prevista en el artículo 5.3.3.4 de la vigente Ordenanza Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Vistas las razones alegadas por HUHEZI KOOP. E. en su escrito de fecha 3 de julio; de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda,

la abstención de Nestor Arana por ser trabajador de la entidad solicitante y el voto favorable del resto de los corporativos presente, el Pleno ACUERDA:

Primero: DECLARAR LA OBRA DE REFORMA Y AMPLIACION DEL EDIFICIO SITO EN EL Nº 19 de DORLETA UZOA DE INTERES SOCIAL y en consecuencia amparada en una bonificación del 95% de la cuota devengada del ICIO.

8.- PROPUESTA DE FORMALIZACIÓN DE CONVENIO DE COLABORACION CON EL GOBIERNO VASCO PARA LA PRESENTACION DE ESCRITOS DIRIGIDOS A LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO EN EL REGISTRO MUNICIPAL

Visto el dictamen elevado desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, por el que se propone formalizar un convenio administrativo de colaboración con el Gobierno Vasco para la presentación de escritos dirigidos a la Administración Autonómica en el registro de este Ayuntamiento, y

De conformidad con el mismo y el voto favorable de todos los corporativos presentes, que constituyen el quorum de la mayoría absoluta legal, el Pleno ACUERDA:

Primero.- Formalizar con el Gobierno Vasco el convenio de colaboración propuesto y por el que se permita a los ciudadanos que presenten en el Registro de este Ayuntamiento solicitudes, escritos y comunicaciones dirigidos a la Administración Autonómica del País Vasco y a las Entidades de Derecho público con personalidad jurídica propia, vinculadas o dependiente de aquélla.

Segundo.- Facultar al Alcalde José Ramón Zubizarreta Alegría para que suscriba el convenio en nombre y representación del Ayuntamiento.

9.- PROPUESTA DE APROBACION DE LAS CUENTAS GENERALES- 2018

En cumplimiento del artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Comisión Especial de Cuentas procedió al examen de las Cuentas y Estados contables del ejercicio 2018, integrada por las cuentas anuales y estados contables de la propia Corporación, junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como las liquidaciones del Presupuesto del Ayuntamiento.

En sesión de fecha 23 de mayo de 2019 la Comisión Especial de Cuentas dictaminó favorablemente la aprobación de las citadas cuentas.

Mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 28 de mayo de 2019, fueron sometidas a información pública por término de quince días, sin que durante dicho plazo se interpusiese alegación a reclamación alguna.

Con base a cuanto antecede, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y HAcienda, el Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

“Aprobar definitivamente el expediente relativo a las cuentas generales del Ayuntamiento correspondientes al ejercicio 2018, tras su aprobación inicial en la Comisión Especial de Cuentas celebrada en fecha 23 de mayo de 2019 y tras haber transcurrido el plazo establecido de información pública desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 28 de mayo de 2019, sin que se haya producido reclamación ni observación alguna contra el expediente inicialmente aprobado.”

10.- MODIFICACIÓN DE CREDITOS Nº 18

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos Nº18, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO**.

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta.

Con la abstención de los tres concejales presentes de EH BILDU y el voto a favor del resto de los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 18 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

| Aplicación presupuestaria de gastos | Concepto | Créditos | | |
|--|-------------------|-----------|----------------|-------------|
| | | Actuales | Modificaciones | Definitivos |
| 1 0100.601.153.30.04 | MOBILIARIO URBANO | 87.800,00 | 40.000,00 | 127.800,00 |

| | | | | |
|------------------------------|---|------------|------------|------------|
| 2019 | | | | |
| 1 0100.601.165.00.01 2019 | ARGITERIA PUBLIKOA | 130.500,72 | 90.000,00 | 220.500,72 |
| 1 0400.626.920.00.01 2019 | EQUIPOS PARA PROCESOS DE INFORMACIÓN | 5.650,00 | 2.600,00 | 8.250,00 |
| 1 0200.231.912.00.01 2019 | DIETAS, GASTOS DE LOCOMOCIÓN: CONCEJALES | 3.000,00 | 1.500,00 | 4.500,00 |
| 1 0500.227.241.00.13 2019 | MANCOMUNIDAD: EMPLEO | 19.794,24 | 60,00 | 19.854,24 |
| 1 0100.227.163.00.01 2019 | LIMPIEZA: VÍAS PÚBLICAS | 167.781,33 | 0,01 | 167.781,34 |
| 1 0200.421.920.00.01 2019 | MANCOMUNIDAD: ADMON. GENERAL | 47.913,64 | 144,00 | 48.057,64 |
| | | | | |
| TOTAL | | 462.439,93 | 134.304,01 | 596.743,94 |

| Cod. | Partida | Concepto | Cantidad |
|---------------------------|---------------------------|---|-------------------|
| a | 2 0200.870.000.00.01 2019 | REMANENTE DE TESORERÍA. PARA GASTOS GENERALES | 134.304,01 |
| TOTAL FINANCIACIÓN | | | 134.304,01 |

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

11.- MODIFICACIÓN DE CREDITOS Nº 19

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos Nº 19 , mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, por unanimidad, el Pleno ACUERDA:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 19 , mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

Partidas de gasto: créditos que se quieren transferir (bajas)

| Partida | Denominación | Crédito inicial | Reducción | Crédito final |
|------------------------------|------------------------------------|------------------|-----------------|------------------|
| 1 0200.160.342.20.01 2019 | SEGURIDAD SOCIAL: POLIDEPORTIVO | 26.572,34 | 6.100,00 | 20.472,34 |
| TOTAL | | 26.572,34 | 6.100,00 | 20.472,34 |

Partidas de gasto: créditos que se quieren incorporar (altas)

| Partida (*) | Denominación | Crédito inicial | Incremento | Crédito final |
|------------------------------|---|-----------------|------------|---------------|
| 1 0300.481.230.10.01 2019 | SUBVENCIÓN: SITUACIONES DE NECESIDAD SOCIAL | 0,00 | 6.000,00 | 6.000,00 |

| | | | | |
|---------------------------|------------------------|-----------------|-----------------|-----------------|
| 1 0400.481.341.00.01 2019 | SUBVENCIÓN: DEPORTE | 3.000,00 | 100,00 | 3.100,00 |
| | | | | |
| TOTAL | | 3.000,00 | 6.100,00 | 9.100,00 |

* Se podrán crear nuevas partidas presupuestarias

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

JUSTIFICACION DE VOTO:

NEstor Arana dice que su grupo está de acuerdo con la mayoría de los puntos, pero no lo está tanto con el relativo al de los equipos informáticos. Señala que si bien han recibido información sobre el costo, no han sido informados sobre los destinatarios de los equipos que se quieren comprar. Añade que constatan una falta de política de planificación sobre el material informático que se compra y para quién se compra , así como en lo relativo a las licencias.

Josu le informa que son tres tabletas que se van a comprar para los tres concejales que asumen presidencia de comisiones y que a la fecha no disponen de equipo municipal. Señala que considera que ese equipamiento es necesario para que puedan ejercer su cargo y que cada tableta cuesta 364 euros; luego, añade, estaría el costo del software y la licencias; así como que si bien en su día su grupo (EHA BILDU) optó por el software libre, se ha constatado que está dando problemas de compatibilidad con algunos equipos y teléfonos, y ante esa situación han optado por un sistema con garantías de funcionamiento. Adelanta que la política existente en esta materia podrá ser objeto de debate cuando se apruebe el presupuesto del año que viene, pues es entonces, dice, cuando se plantean las previsiones del siguiente ejercicio en esa y otras materias.

12.- MODIFICACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES.

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 18 de diciembre de 2018, adoptó el acuerdo de actualizar el Plan Estratégico de Subvenciones 2016-2019 al objeto de adecuar dicho plan al contenido del Presupuesto del ejercicio 2019.

Aprobada la actualización, se ha visto la conveniencia de modificar algunas de las previsiones contempladas en su Anexo, con el fin de ampliar el ámbito subjetivo y/ o objetivo de algunos de los programas de subvenciones de las diferentes LINEAS ESTRATEGICAS. Dichas modificaciones consisten en:

A- INCREMENTAR EL COSTE PREVISTO EN LOS SIGUIENTES PROGRAMAS:

DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: Subvenciones para actividades deportivas programadas grupos y asociaciones deportivas sin ánimo de lucro de Eskoriatza

B.- CREAR UN NUEVO PROGRAMA DENTRO DE LA “LINEA ESTRATEGICA Nº 3: ACCION SOCIAL” al objeto de poder atender necesidades de interés social que se consideran que requieren una intervención y no están previstas en otro programa municipal de ayudas sociales.

Por lo anteriormente mencionado, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y con el voto a favor de todos los concejales presentes, el Pleno ACUERDA

PRIMERO.- INCREMENTAR EL COSTE PREVISTO EN EL SIGUIENTE PROGRAMA:

C) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: Subvenciones para actividades deportivas programadas grupos y asociaciones deportivas sin ánimo de lucro de Eskoriatza

DESTINATARIOS: colectivos ciudadanos y asociaciones deportivas con sede y/o ámbito de actuación en Eskoriatza.

OBJETO: ayudar económicamente a las actividades que realizarán durante el año los grupos y asociaciones deportivas del municipio sin ánimo de lucro. El objetivo último es ofrecer en el municipio actividades deportivas de calidad y fomentar la participación ciudadana.

MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: convocatoria pública. Concurso.

COSTES PREVISIBLES 2019: 3.100 €

FINANCIACIÓN: Partida 0400.481.341.00.01

SEGUNDO.- CREAR EL SIGUIENTE PROGRAMA DE AYUDAS

L) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: **SITUACIONES DE NECESIDAD ESPECIAL NO PREVISTAS EN EL AMBITO DE SERVICIOS SOCIALES**

DESTINATARIO: Asociaciones, instituciones o personas físicas que se encuentran en situaciones especiales, de urgencia y/o emergencia excepcionales y/o imponderables.

OBJETO: Ayudar económicamente ante necesidades de interés social que se consideran que requieren una intervención y no están previstas en otro programa municipal de ayudas sociales.

EFFECTOS PRETENDIDOS: Aliviar situaciones imprevisibles provocadas por el ser humano o por desastres naturales

MODALIDAD DE LA CONCESION: Directa

COSTE PREVISIBLE: 6000 €

FINANCIACION: 1 0300.481.230.10.01 2019 Aplicación presupuestaria

13.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:30 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.